



2001EKO URTARRILAREN 25EKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko urtarrilaren hogeita bostean, iluntzeko zazpiretan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo eta Jose Antonio Dopazo Martin.

Julio Ibañez Urteaga eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2000ko azaroaren 30ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 2001EKO URTARRILAREN 1ERA BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN ZUZENKETA.-

Udaleko Zerbitzu Teknikoek 2001eko urtarrilaren 1 datara Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa prestatu dutelarik, Osoko Bilkurara aurkezten dira zuzenketa honen zenbakizko emaitzak, bere onarpenerako.

Zuzenketa honen arabera, Lazkaok lau mila bederatzirehun eta bi (4.902) biztanle zituen 2001eko urtarrilaren 1ean. Zenbaki hau ondorengo eragiketen emaitza dugu:

KONTZEPTUAK	GUZTIRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Biztanlegoa 2000-01-01 datara	4.886	2.510	2.376
Altak 00-01-01etik 2001-01-01era	162	92	70
Bajak 00-01-01etik 2001-01-01era	146	80	66
Biztanlegoa 2001-01-01era	4.902	2.522	2.380

Osoko Bilkurak, aho batez, 2001eko urtarrilaren 1 datara egindako Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa hau onartu egiten du.

...///...

...///...

IV.- 2001 URTERAKO UDAL LANGILEEN LAN EGUTEGIA.-

2001 urterako udal langileen lan egutegiei buruz, Estensoro zinegotziak, Pertsonal Batzordeko presidente gisa, esaten du langileek aurkeztutako egutegien aurrean udaltzaingoa eta bulegoetakoekin negoziatu zela beraien eskakizunak zerbitzua emate maila jeitsi gabe uztartze helburuarekin. Gaineratzen du, bulegoetan orain arte bezala, langile bakoitzak astean arratsalde bat eginez, arratsaldeetan zerbitzua mantendu egingo dela abuztu arratsaldeetan izan ezik eta udaltzaingoa ere orain arte bezalako ordutegian zerbitzua mantentzeko akordiora iritsi dela, jai hartu beharreko orduak zerbitzua bermatuta dagoen orduetan hartuz. Bestalde, esaten du, ARCEPAFEn hitzartutakoaren arabera, urtean 1592 ordu egingo dituztela Lazkaoko udal langileek.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, 2001 urterako lan egutegiak onartzea erabakitzen du.

V.- GOIERRI INDUSTRIA LURRA, S.A.-

Alkateak esaten du, aurreko osoko bilkuran azaldu bezala, Goierri eskualde mailako industri lurra elkarte sortzea planteatzen dela eta elkarte honek Goierriko udal, Diputazioa eta SPRILURen partaidetza izango lukeela. Goierriko udalek, guztira, akzio edo partaidetzaren %24,5a izango lukete eta akzioak bi motatakoak izango dira, A eta B motakoak. A motako akzioak Goierriko udalek, biztanleen arabera, suskribituko lituzkete eta B motako akzioak berriz epe motzera bere udalerrian industria sustatzea aurrakusten duten udalek. Gaineratzen du Alkateak A motako akzioak Goierriko udal guztiek suskribituko dituztela. Azkenik esaten du, egin den azterketaren arabera, Lazkaok, A motako akzioetan, elkarte berri horretan izango duen partaidetza 12.660.000,- pta. (76.088,13 €).

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du Lazkaori, lehendik Lazkao Industri Lurrean jarrita daukan kapitala kontutan izanda, dirua jarri ez baizik dirua jasotzea tokatuko litzaiokela.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurreko osoko bilkuran eman zituen arrazoiengatik abstenitu egingo dela.

Guzti honen ondoren Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- Goierriko Industrialdea, S.A. elkartean parte hartzea, gure udalari, biztanle kopuruaren arabera, dagokion ekarpena osatzeko A motako behar adinako akzio kopurua harpidetuz, Goierriko eskualdeko udalek elkarrekin harpidetu beharko duten kapital sozialaren %35 horretan. Lazkaoko Udalaren partaidetza hori 76.088,13 €tako (12.660.000 Pta.) izango da gutxi gora behera.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea gaur egun Lazkao Industri Lurra, S.A. elkartean izenpetutako kapitalaren zati bat Goierriko beste udalerrri batzuei saltzeko konpromisoa hartu ahal dezan, udal partaidetza integratuko duen elkarte anonimo berriaren eratze hitzarmenean ezartzen denaren arabera.

...///...



...///...

VI.- LANPOSTU BERRIA SORTZEA.-

Alkateak esaten du iaz Euskal Autonomi Elkarteko Toki eta Foru Administrazioetako ordezkariak alde batetik eta administrazio hoietako langileen ordezkariak bestetik, asteko lan orduak 35era jeistea hitzartu zutela eta ordu jeiste horren helburua enplegu berria sortzearena zela. Ordu murrizketa hori, Lazkaoko Udalean, urtean langile baten ordu kopuruaren parte dela eta, udal langileen ordezkariekin lanpostu berri bat sortzearen egokitasunaz hitzegin zen, eta ordu murrizketak gehien ukitzen dituen arloak udaltzaingoa eta obra eta zerbitzuetako brigada direla eta, bi arlo hoiak gehitzera joko lukeen lanpostu bat sortzea aurriztatu da.

Irastortza zinegotziak (EH) udaltzain eta brigadako operaria lanpostu batean nahasmena sortuko ez ote duenaren kezka azaltzen du.

Estensoro zinegotziak, Pertsonaleko Batzordearen presidente gisa, erantzuten dio lan egutegian funtzioak ondo banatzearekin konponduko dela hori.

Lanpostu berri honen ezaugarriak buruz zenbait eztabaidaren ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere parteide guztien aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehenak.- Lazkaoko Udalaren funtzionarien plantillako udaltzain agente-mantenimendu eta obretako operari lanpostua sortzea.

Bigarrenak.- Udaltzain agente-mantenimendu eta obretako operari plazaren ezaugarriak honako hauek izango dira:

<u>Hizkuntz eskakizuna:</u>	2
<u>Eskala:</u>	Administrazio berezia
<u>Azpieskala:</u>	Zerbitzu bereziak
<u>Mota:</u>	Udaltzaingoa
<u>Sailkapen taldea:</u>	D
<u>Ordainsari maila:</u>	EFAULEBAren 9. Maila
<u>Betetze sistema:</u>	Lehiaketa-oposizio bidez

Eginkizunak: udal honek onartutako lanpostuen antolaketan, udaltzaintzat zehazten diren guztiak eta mantenimendu eta obretako operari lanpostuan zehazten diren guztiak.

VII.- 2001 URTERAKO AURREKONTUA.-

Alkateak 2001 ekitaldirako aurrekontuaren azalpena egiten du. Esaten du aurrekontuaren gutzitza 589.011.018,- pta. (3.540.027,51 €) dela, diru-sarreraren aurrekontua 521.795.550,- pta.koa (3.136.054,42 €) eta inbertsioek guztira 146.200.000,- pta. (878.679,70 €). Esaten du baita ere diru-sarrera eta gastuen arteko oreka lortzeko 67 milioi inguruko mailegua jarri dela baina behin likidazioa egin eta gero han lortuko den gerakina nahikoa izango dela eta mailegu hori materializatu beharrik gabe. Jarraian aurrekontuan azaltzen diren inbertsioak zerrendatzen ditu. Gaineratzen du aurrekontu honekin 2000. urteko aurrekontuarekin abian jarritako hariari jarraitu nahi zaiola eta bestalde alderdi berriak

...///...

...///...

urratu nahi direla. Esaten du baita ere diru kopuru handiena nora bideratzen denaren arabera 3. adinari zuzendutako aurrekontua dela, Orobionerekin ez delako zaharren egoitza lekuz aldatzea bakarrik egin nahi baizik eta eguneko zentroa egin nahi delako baita ere, eta gai honekin haruntzago ere joan nahi dela Ataun eta Olaberrirekin arlo hauek elkarrekin landuz. Esaten du baita ere Ifarra-Hegoa programan %0,7tik %1era iritsi nahi dela, urtez urte %0,1 igoz, eta hala aurtengorako %0,8a planteatzen dela. Esaten du baita ere AA.SS.en azterketa egiten ari dela eta baita ere Agauntza erreka berreskuratzeko azterketa bat enkargatu zaiola IKAUR enpresari. Gaineratzen du AA.SS.ekin lotuta beste proiektu batzu ere badaudela aurreko urtean mugitu ez direnak, baina aurten martxan jartzeko asmoa dagoena. Esaten du baita ere herri argiteriaren hobekuntzarekin jarraituko dela, haurrentzako parkeak ekipatzeko partida bat jarri dela eta Lazkaoko gune historikoaren dinamizazio plana egiten ari dela IKO-NOS enpresa. Azkenik kultura eta kiroletarako jarri diren partidak aipatzen ditu.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du beraiek ezezkoa emango diotela aurrekontu honi alde batetik iazko parte handi bat bete gabe dagoelako eta bestetik iaz beraiekin kontatu baldin bazen ere aurten beraiekin kontatu ez dutelako.

Estensoro zinegotziak (EA) Amundarain zinegotziari erantzunez esaten dio aurreko aurrekontuan planteatutako gauzak ez direla bete esan duenari buruz, zenbait gauza AA.SS.en azterketaren ondoren bakarrik jarri daitezkeela martxan, adibidez lur erosketarena. Esaten dio baita ere iazko aurrekontuko beste ardatz bat ikerketa eta azterketena zela eta arloz arlo nahiko sakonak diren zenbait proiektu bideratzen ari direla, Alkateak bere azalpenean adierazi duen bezala. Beraiekin kontatzeari buruz esan duenari erantzuten dio esanez beraien perzeptzioa izan dela Euskal Herritarrokek iazkoa betetzen ez zen bitartean aurtengoan sartzeko asmorik ez zuela.

Sarriegi zinegotziak (EA) esaten du kiroletoako batzorde batean hitzegindako izan zela pizsina non egiteari buruz AA.SS.en azterketa pixka bat aurrera eraman arte ez egitea eta horretan denak ados agertu zirela.

Irastortza zinegotziak (EH) erantzuten dio batzordean zerbait hitzegin baldin bazen bidegorriari buruz izango zela.

Sarriegi zinegotziak erantzuten dio pizsinarena ere baietz.

Irastortza zinegotziak esaten du pizsinaren azterketa ez dela bakarrik non egin behar den baizik eta pizsina baten beharrari buruzko azterketa ere baietz.

Sarriegi zinegotziak erantzuten dio hori batzordean esan egin behar dela, ez isildu eta gero plenoan esan.

Alkateak martxan dauden gaiei buruzko zerrenda baten azalpena egiten du eta martxan jarri ez direnei buruzko horren zergatia ematen du.

Une honetan Amundarain zinegotzia aretotik atera egiten da.

Irastortza zinegotziak esaten du iaz beraiek aurkeztutako zerrenda aurrean daukala eta hoietatik zein egin diren eta zein ez esaten hasteak uste duela ez duela merezi.

...///...



...///...

Agirre zinegotziak (EH) esaten du iaz planteatutako gauzak bete gabe ez zeudela aurrekontu hau onartzeko prest esan zutela ez eztabaidatzeko prest ez zeudenik.

Estensoro zinegotziak esaten du benetan hitz egiteko prest daudela esaten badute, hor gaizki ulertze bat egon dela, zeren beraiek ere hitzegiteko prest daudela, nahiz gero akordiora iritsi ala ez.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurrekontua txosten batez lagunduta etorri behar dela eta eskuetan zuen txuleta horrekin esplikazioak ematen saiatu baldin bada ere, aurrekontuaren gainontzeko dokumentuekin batera txosten hori eduki behar dutela aurrekontua aztertu ahal izateko. Baita ere esaten du lehengoari jarraipena ematen dion aurrekontua dela Alkateak berak esan duen bezala eta kudeaketa defizita dagoela, burutu gabe daudelako. Esaten du baita ere inbertsio bezala azaltzen diren aurtengo proposamen asko ez direla inbertsioak eta benetan inbertsioetara bideratzen dena oso gutxi dela. Esaten du baita ere, gizarte zerbitzuetako proiektuei dagokionean, orain dela urte dexente beraien gobernu programan horietako gauza asko aurrikusten zituztela. Esaten du baita ere Udalbiltzari buruz ez duela aipamenik egin baina elkar ez topatzeko bideak jartzen direla topaguneak lortzera jo beharrean. Esaten du aurrekontua ez duela onartuko, gobernu taldeak porrot egin duela eta baita honek egin zuen apostu estrategikoak ere, aurrekontua proposatzen dutenak bakarrik onartzen dutela, kudeaketa eskaxa errepikatu egingo dela, kontsentsua eskatzen duten erronka garrantzitsuen aurrean gaudela eta autokritika gutxi ikusten duela.

Estensoro zinegotziak erantzuten dio aurtengo inbertsioetako aurrekontua 142 milioio-koa dela, eta honek aurrekontuaren ehuneko hogeita piko suposatzen duela. Gaineratzen du inbertsioak legegintzaldiako aurrikusitakoak direla eta batzuk urte bat baino gehiagokoak direla eta bera (Dopazo) egon ez zen kontsentsuan planifikatu zirela. Eta bukatzeko esaten du hauek aurrekontu on batzu direla.

Alkateak Dopazo zinegotziak esandakoei erantzunez esaten du, besteak beste, irakurri duena ez dela txuleta soil bat, ia erabat errematatuta zeukan txosten bat dela aurrekontuarekin batera bidali ez badu ere eta datorren urtean aurrekontuarekin batera bidaltzen saiatuko dela.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EAJ, EA) eta aurkako 3 boturekin (EH, PSE-EE), honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- Ondorengo kapituluko laburpenak dituen 2001eko Udal Aurrekontua haserako izaeraz onartzea:

2001EKO AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	108.592.200,-
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	26.910.000,-
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	87.860.000,-
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	295.255.900,-
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	2.908.350,-
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	269.100,-
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	67.215.468,-
		SARRERAK GUZTIRA	589.011.018,-

...///...

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	147.948.400,-
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GASTUAK	198.372.640,-
III	KAPITULUA	FINANTZA-GASTUAK	3.105.000,-
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	74.094.228,-
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	136.700.000,-
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	15.335.750,-
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	13.455.000,-
		<u>GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>589.011.018,-</u>

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VIII.- 2001 URTEKO PLANTILLA ORGANIKOA.-

Jarraian eta Hazienda, Pertsonal eta Gobernamendu Batzordetik Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako 2001erako Udal Langileen Plantila Organikoa, bere espedientean aurkitzen dena.

Alkateak esaten du puntu hau eta honen ondoren tratatuko den lanpostuen zerrenda puntuan, aurreko urteetatotik dauden aldaketak gaur sortzea onartu den udaltzain-operari plaza bat funtzionarien plantilan sartzea eta iaz amortizatzeko bezala jarri zen lan hitzarmeneko langileen plantilan aretoen garbitzaile lanpostu bat amortizatzean daudela, azken hau bere titularraren jubilazioaren ondoren.

Osoko Bilkurak, Plantilla Organiko hau aztertu ondoren, aldeko 7 botu (EAJ, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), onartzea erabakitzen du.

IX.- 2001 URTEKO LANPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian eta Hazienda, Pertsonal eta Gobernamendu Batzordetik Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako 2001 urteko Udal Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen dena.

Osoko Bilkurak, Lanpostuen Zerrenda hau aztertu ondoren, aldeko 7 botu (EAJ, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), onartzea erabakitzen du.

X.- AUTORE ETA ARGITARATZAILEEN ELKARTE NAGUSIAREKIN HITZARMENA.-

Alkateak esaten du EUDELetik idatzi bat jaso dela Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusiarekin (A.A.E.N.) izenpetu duten hitzarmenaren berri emanaz. Izenpetu duten hitzar-

...///...



...///...

menaren barruan Udalak hitzarmen horri bere atxekimendua azaltzeko prozedura finkatu dute. Hitzarmen horri atxekituz gero AAENk Udalak ordaindu beharreko kuoten % 25eko hobaria aplikatuko lioke eta atxekimendu hori urtarrilaren 31 baino lehen AAENri jakinaraziz gero, 1999 eta 2000 urteetan ordaindutakoari ere % 25eko hobari hori aplikatuko litzaioke. Guzti hau honela izanda, Alkateak hitzarmen honi atxekitzea proposatzen du.

Agirre zinegotziak (EH) gai hau inongo batzordetik pasatu al den galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio ezetz, ez dela pasatu.

Agirre zinegotziak esaten du hori horrela izanda, abstenitu egingo direla.

Gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EA), EA, PSE-EE), aurkako boturik gabe eta 2 abstentzios (EH) Lazkaoko Udala EUDEL eta AAENk izenpetutako hitzarmenari atxekitzea erabakitzen du.

XI.- EUSKAL HERRITARROKEN MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Espainiar Gobernuak onartu berri duen humanitateen erreformarako hezkuntza dekretuak Euskal Herriaren zati handi batean eragin kaltegarriak izango ditu. Geure herriari hezkuntza sistema propioa izateko aukera ukatzen zaio hala Pariseko Gobernuaren aldetik nola Madrilgo Gobernuaren aldetik, eta azkeneko honek onartutako dekretuak ukapen hori sendotzeko helburua baino ez dauka.

Euskal Herriko hezkuntza komunitateko gehiengo zabalak, bere aldetik, hezkuntza-dekretuari ezezko borobila ematearekin batera, Euskal Herriko sei herrialdeak bilduko dituen hezkuntza-sistema propio baten aldeko aldarrikapena egin berri du.

AKORDIO PROPOSAMENA

Espainiar Gobernuak onartutako humanitateen erreformarako hezkuntza dekretuaren aurrean, udal honek honako adierazpen hau egiten du:

1.- Euskaldunok, munduko gainontzeko herriek bezalaxe, geure hezkuntza sistema propioa antolatzeko eskubidea dugu. Eta eskubidea ezezik, beharra ere bai. Izan ere, euskal hezkuntza sistema euskal belaunaldi berrien heziketarako zein gure herriaren garapenerako funtsezkoa baita. Madrilgo eta Pariseko Gobernuek ordea geure hezkuntza sistema propioa garatzeko eskubide hori ukatzen digute, espainiar zein frantziar hezkuntza sistemen legeria ezarriaz.

2.- Humanitateen erreformarako hezkuntza dekretua Madrilgo eta Pariseko Gobernuek darabilten hezkuntza politika horren ildoan kokatzen da, eta beraz euskaldunok geure hezkuntza eredu antolatzeko dugun eskubidearen aurka doa.

3.- Hezkuntza sistema propioaren aldeko lana gizarte osoari, dagokiola aintzat hartuz, udal honek bere egiten du euskal hezkuntza sistemaren aldeko aldarrikapena, eta herritarren arte-

...///...

...///...

an informazioa eta eztabaida bultzatzeko bitartekoak jarriko dituela hitzartzen du. Halaber, udaletxeak sare publikoko eskola kontseiluetan dituen ordezkarien bidez mozio honetan hitzartutako jarrera agertarazteko konpromezua hartzen du.

4.- Mozio honen edukien berri herrian eta ohiko komunikabideetan emango da aditzera."

Alkateak esaten du mozio honen orriak euskal hautetsien mugimenduaren harmarria azaltzen duela baina mozio hau ez dela Udalbide-Udalbiltzaren organo erabakikorretan planteatu eta beraiek aurkako botua emango diotela eta gai honi buruz esan Euskal Herriko Gurasoen Elkarteak, Ikastolen Elkarteak eta beste zenbait elkartek guk geure eskola izenburuean azaroaren 29an izenpetutako dokumentua hartzen dutela beretzat.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du ez dagoela ziur Udalbiltzako batzordetik pasatu edo pasatu gabe dagoen baina egoteko ziur pasatzeko asmoa badutela eta mozio hau batzorde ejekutibotik etorri ez bada beraiek handik bidaliak izan direlako izan dela. Gaineratzen du Alkateak aipatu duen testu hori onartzearen aldekoak izan daitezkeela behar bada baina ez dutela ezagutzen.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du Erkidego honetan historian inoiz izan den autonomi handiena dagoela orain. Baita ere esaten du beraiek ere ez daudela ados legearen aldatetarekin, eta horretan bat datozela mozioarekin, baina bere edukia errespetatu egingo dutela. Baina bestalde ez daude ados mozioan azpimarratzen diren beste hainbat aldekin. Gaineratzen du euskal herriko biztanlegoaren gehingoa autogobernutik atera den hezkuntza sistemarekin identifikatuta dagoela, anitza, bilinguea eta kalitatezkoa. Eta bukatzen du esanez beraiek ere legearen aurka daudelako abstenitu egingo dela.

Agirre zinegotziak (EH) esaten dio bilinguea esan duela eta galdetzen dio ea esan duen hori bilinguean esango lukeen edo irakurri duen testu hori euskaraz emango liokeen.

Dopazo zinegotziak erantzuten dio hori gauzak sinpletzea dela eta bere alderdia hezkuntza sailaren buru egon denean oinarri horiek lantzen saiatu dela.

Guzti honen ondoren, bozketan jartzen da mozioa eta Osoko Bilkurak, aldeko 2 botu (EH), aurkako 5 botu (EAJ, EA) eta abstentzio batez (PSE-EE) mozioa ez onartzea erabakitzen du.

XII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Agirre zinegotziak (EH) bere alderdiko norbaitek herriko ondasunen zerrenda eskatu zuela eta oraindik ez zaiola eman esaten du eta horri buruz galdetzen du.

Estensoro zinegotziak (EAJ) erantzuten dio horrelako gauzak idazkaritzan eskatu besterik ez duela.

Agirre zinegotziak esaten du abenduaren 5ean Eusko Legebiltzarrak EHko partaideei soldatak kentzea erabaki zuela eta hemen badugula zinegotzi bat aspaldi honetan agertu ez dena eta soldatarik ordaintzen zaion jakin nahi duela eta horrek horrela noiz arte jarraitu behar duen.

...///...



...///...

Estensoro zinegotziak erantzuten dio gaur egungo egoeran ezin dugula gizon horri horren errua bota eta hau bere hausnarketa pertsonala dela.

Alkateak esaten du ez dela gai honi buruz hitzegin.

Agirre zinegotziak esaten du berak azkeneko kultur batzordeko bi bileretako deialdirik ez duela jaso eta baserrietako bilerakorik ere ez.

Irastortza zinegotziak (EH) Udalbiltzari aportazioa egin al zaion galdetzen du.

Alkateak esaten dio iazkoa ordaindu zela eta aurtengoa ere ordaintzeko asmoa dagoela.

Irastortza zinegotziak esaten du orain dela urte ta piko Belen atxilotu zutenean jarraipena egitearen konpromezua hartu zela eta horri buruz galdetzen du.

Alkateak esaten du bere azken berrien arabera epaiaren zai jarraitzen zuela.

Irastortza zinegotziak esaten du Belenek, protesta baten ondorioz, bi hilabete pasatu dituela zigor gela batean.

Alkateak esaten du hilero saiatzen dela Belenen amarekin hitzegiten. Bestalde, gaineratzen du, udaleko argitalpen guztiak bidaltzen zaizkio.

XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko hamaikak hoge gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dularik.

